

ZIBERGELA



Gazte batzuk elkarrekin lanean, taldeetan banatuta, ordenagailuaren aurrean. BERRIA

Auzolana Interneten: **wikiak**



Wiki sistemei esker, modu erraz batean argitara daitezke webguneak, talde lana bultzatu eta erraztuz

IBON AIZPURUA UGARTE
Eleka ingeniari-tza linguistikoa

Askotan gertatzen da gai bati buruzko edukia pertsona bat baino gehiagoren artean landu behar izatea, web proiektu bat aurrera eramateko lan talde bat biltzea edota besterik gabe gustuko den zerbaiti buruz webgune bat argitaratu nahi izatea. Asmo horiek aurrera eramateko tresna ezin hobeak dira lankidetzarako aplikazioak. Euskal Herrian aspaldiko ohitura da auzolana, eta wiki sistemek hori Internetera ekarri dute.

Wiki terminoa hawaierazko *wiki wiki* hitzetik dator eta *azkar-azkar* esan nahi du hizkuntza horretan. Termino horrek oso ondo adierazten du helburua zein den: era erraz eta azkar batean webgune bat argitaratzea. Erabiltzaileek ezer berezirik jakin gabe sortu, editatu eta ezaba ditzateke web

orriak. Gainera, erabiltzaile bat baino gehiago ari daitezke lan horretan, eta edizio prozesuan izandako aldaketa guztiak erregistratuak geratzen dira, atzera jo nahi bada. Wiki bidez garatutako adibide garbiena Wikipedia entziklopedia librea da.

Software soziala

Wikiak software sozialaren adibide garbia dira: pertsonen arteko lankidetzak eta gaitasun sozialak garatzen laguntzen dute. Informazioa trukatzeko plataforma proposa dira, eta horrez gain, zerbaiten gainean interes komuna duten pertsonak sare baten bidez elkartzeko ahalmena du. Web 2.0 motako tresna ezagunenetakoa da, blogekin batera.

Erraztasuna

Wiki bat sortzeko ez da inongo tresna berezirik eskuratu behar, nahikoa da web nabigatzaile batekin. Orriak editatzeko interfaze sinpleak erabiltzen dira; horrela, erabiltzaileak berehala ikasten du nolakoa den edizio prozesua. Gai

Wiki bidez garatutako adibide garbia Wikipedia entziklopedia librea da, Interneten oso ezaguna

Zerbitzua eskaintzen duten guneen publizitate bizi dira, baina badira iragarkirik gabekoak doan ere

nera, orri bat behin argitaratutakoan ez da behin betirako horrela geratzen, eguneratu egin daiteke. Horrek bertan dagoen informazioa eguneratuta edukitzen laguntzen du.

Edizioaren kontrola

Lankidetzak tresna izaki, edukia lantzeko prozesuan sortu diren edizio edo bertsioak gorde egiten dira. Bertan aldaketaren egilea, data eta egindako aldaketak erakusten dira, alde batetik ezabatutako edukia eta beste aldetik gehitu dena. Azkena argitaratutako bertsiotik aurrekora joateko aukera ematen du; horrek edizioaren erabateko kontrola ematen dio lan taldeari. Gainera, orri batean sartu nahi den eduki baten inguruan eztabaidak sor daitezke adostasuna iritsi eta egokiena izango dena argitaratzeko.

Sortu wiki bat

Wiki bat sortzeko erarik errazena sarean dauden doako zerbitzariak baliatzea da; wikien ostatatze zerbitzua eskaintzen duten dozenaka gune daude. Haietan gune bat irekitzea oso sinplea izan ohi da; erregistratu eta guneari izen bat jartzea nahikoa izaten da. Orokorrean, gunearen izena helbidearen lehenengo zatia izan ohi da (izena.domeinua.com).

Mota horretako zerbitzua Wikispaces webgunean eskaintzen dute. Zerbitzuak urte batzuk

daramatza abian eta oso ezaguna da wikien munduan. Edukiak sortzeko orduan erraztasun handiak eskaintzen ditu, estekak, irudiak, taulak eta halako elementuak sartzea oso intuitiboa da. Baina oinarriko elementu horiez gain, *wid-get* deitzen diren elementu konplexuagoak ere sar daitezke. Esate baterako, RSS jario batetik datozen elementuak sortutako orri berrian argitaratzea ahalbidetzen duen tresna; horretarako, nahikoa da jario horren helbidea jartzea. Hori bezala txerta daitezke bideoak (YouTube eta beste hainbat zerbitzaritakoak), audioa, egutegiak, mapak eta abar.

Zerbitzu hau eskaintzen duten guneak normalean publizitate bizi dira; horrela sortzen diren orrietan iragarki batzuk sartu ohi dituzte, Google AdSense zerbitzuak esaterako. Baina badira batere publizitate gabe doako zerbitzua eskaintzen duten guneak ere.

Sortu wiki bat, partekatu eta garatu ezagutzak auzolanean!

Wikipedia
eu.wikipedia.org/wiki/Wiki
Wikispaces
www.wikispaces.com
Wiki zerbitzaren zerrenda
en.wikipedia.org/wiki/Wiki_fa_rm

Zibergelako artikulu guztiak:
www.baleike.com/blogak/zibergela

Mantendu osasuntsu ordenagailua

Ordenagailuei software asko ezarri eta kentzen zaizkie irauten duten artean. Aplikazioak ongi kentzen badira, hau da, desinstalatzeko duen botoitik, itxura batean guztia ezabatzen da ordenagailutik. Baina ez da horrela, beti gertatzen dira arrasto batzuk ordenagailuan, normalean erregistroetan. Horrez gain, programek beren funtzionamendurako behin-behineko hainbat fitxategi erabiltzen dituzte, eta batzuetan ez dituzte guztiak ezabatzen. Arazo hauek Windows sistema eragileetan ohikoak dira.

Gauza baten eta bestearen artean ordenagailuan zaborra metatzen joaten da pixkana-pixkanaka, eta horrek bere eragina izaten du errendimenduan: ordenagailuak denbora gehiago behar izaten du pizteko, eta disko gogorreko espazio librea gero eta txikiagoa da. Arazo horiek konpontzeko Wise Cleaner softwarea oso egokia da, Registry Cleaner aplikazioarekin sistema eragileko erregistroa garbi mantenduko du; Disk Cleaner izenekoarekin, berriz, disko gogorrean dauden eta behar ez diren fitxategiak ezabatuko dira. Bi aplikazioak doan jaits daitezke.

 www.wise cleaner.com



Sareko argiak 10 urte, eta Irratia.com-ek 100 saio

Joan den astean ospakizun garrantzitsuak izan ziren euskal internautentzat; alde batetik, Sareko Argiak bere 10. urteurrena bete zuten, eta Irratia.com irrati digitalak, bestalde, bere 100. saioa eman zuten. Bakoitzak bere erara baina biek ere ederki ospatu zuten, bai baitzuten horretarako motiborik. Sareko Argiak Donostian egin zuten ekitaldian, *Vilaweb* webgunez zuzendari Vincent Partal izan zen gonbidatu nagusia; berak, etorkizunean hedabideek dituzten erronkak azaldu zituen bertan bildu zirenen aurrean.

Irratia.com-ekoek, berriz, Bilbo Kafe Antzokian osatu zuten beren 100. saioa, horretarako hainbat gonbidatu izan zituzten, tartean Martxelo Otamendi BERRIAKO zuzendaria. Webgunean ikusten denez, ospakizuna iragartzeko kartelean azaltzen ziren ardiek ere zuten hutsik egin.

 www.argiak.com
 www.irratia.com